

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### HEREÑAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### Larre aprobetxamendurako errentamendu enkantea

Hereñako Administrazio Batzarrak, urriaren 2an balio osoz egindako kontzejuan, behin-behinekoko onespena eman zion administrazio klausula berezien agiriari; hain zuzen ere, Erriberagotiko Hereña herriaren jabetzako onura publikoko 593 mendiko larreen aprobetxamendurako errentamendu kontratua esleitzeko enkantea arautuko duten administrazio klausula berezien agiriari, zeina jendaurrean jarriko baita 8 egun baliodun, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, erreklamazioak aurkezteko.

Aldi berean, eta bat etorritz toki araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bateratuak 122.2 artikuluan ezarritakoarekin, lehiaketa publikoa deitzen da, nahiz eta lizitazioa atzeratu egingo den baldintza agiri horren aurka erreklamazioen bat aurkezten bada.

Erriberagotiko Hereña herriaren jabetzako onura publikoko 593 mendiko larreen aprobetxamendurako errentamendu kontratua esleitzeko enkantea.

1. Erakunde esleitzaila: Hereñako Administrazio Batzarra.
2. Kontratuaren xedea: Erriberagotiko Hereña herriaren jabetzako onura publikoko 593 mendiko larreen aprobetxamendurako errentamendu kontratua esleitzeko enkantea.
3. Kontratuaren iraupena: 5 urte iraungo du kontratuak.
4. Lizitazio oinarria: Bostehun (500,00) euro urteko. Gehiago eskainiz baino ezingo dira hobetu eskaintzak.
5. Espedientea: Erriberagoitiko udaletxeko (Pobes) udal idazkaritzan dago ikusgai.
6. Bermeak: behin-behinekoko bermea lizitazio oinarriaren ehuneko 4 izango da. Behin betikoa, berriz, lizitazioaren ehuneko 6.
7. Eskaintzak aurkeztea: Eskaintzak Erriberagoitiko Udalaren bulegoetan aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:00etara, 13 egun naturaleko epean (larunbatetan izan ezik), iragarkia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.
8. Aurkeztu beharreko agiriak: administrazio klausulen agirian adierazitakoak.
9. Eskaintzak irekitzea: Erriberagoitiko udaletxeko udal bulegoetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatu eta hurrengo egun balioduneko 13:30ean.
10. Bestelako informazioa: ikus administrazio klausulen agiria.
11. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Hereña, 2021eko urriaren 8a

*Lehendakaria*

**JORGE MARTINEZ DE LA PERA MATELLANES**